

## GAZTEAK ETA ELKAR-LANKIDETZARI BURUZKO JARDUNALDIAREN BERRI

Aurreko urteetan bezala, Zuzenbidearen Euskal Akademiak, Kooperatiba Zuzenbidearen Nazioarteko Elkarteak, Kooperatiba Ikasketen Institutuak, CIRIEC-Españaik eta Deustuko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateak, pasa den azaroaren 21ean jardunaldi bat antolatu zuten kooperatiben balioak gazteei eskualdatzeari buruz eta elkar-lankidetzari buruz XXI. mendeko kooperatibetan. Ekitaldia arrakastatsua izan zen edukiei eta partaideei begira.

Antonio Fici irakasleak eman zuen lehenengo hitzaldia. Moliseko Unibertsitateko (Italia) irakasleak azpimarratu zuenez, kooperatiba-sozietateek bultzatzen dituzten balioak goraiatu behar dira, hala nola, mutualismoa, pertsonaren nagusitasuna kapitalaren gaintik, eta altruismoa edo kooperatiben ekarpena interes orokorrera. Balio horiek Zuzenbideko arauetan jartzeak egun garrantzi handiagoa dauka kooperatiben gaineko arauketa ezberdina izan behar dela justifikatzeko, merkataritzako sozietate kapitalisten arauketarekin alderatuta. Fici irakasleak animatu gintuen kooperatiben balio horiei eusteko, kooperatibaren nortasuna osatzen baitute; halaber, berak esan zuenez, harreman estuagoak izan behar dira kooperatibak aztertzen dituzten legelarien eta kooperatiba-mugimenduaren artean, baita herrialde ezberdinetan kooperatibetan adituak diren legelarien artean ere.

Bigarren hizlaria Monzón irakaslea izan zen, CIRIEC-Españaiko lehendakaria. Hasteko, irakasleak kooperatiben datu nagusiak azaldu zituen mundu mailan eta estatu mailan. Datu horietatik nabarmen daitezke krisi ekonomikoa hasi zenetik enpresa kapitalistek euren enpleguaren %20 galdu duten bitartean kooperatibek %8,4ko enplegua soilik galdu dutela, langileak eta bazkideak kaleratu aurretik gizarte-kostu horiek sarritan barneratzen dituztelako. Datu horiek abiaburu izanik, Monzón irakasleak azpimarratu zuenez, elkar-lankidetzaren ezinbestekoa da globalizazioaren erronkei aurre egin ahal izateko; baina, aldi berean, elkar-lankidetzaren kooperatiben balioa zaintzeko behar da. Amaitzeko, elkar-lankidetzarako tresna bezala, kooperatiba-taldeak sortzen dira koordinazioaren bidez eta ez, ordea, hierarkia eta mendekotasunaren bidez kapitaleko sozietateetan gertatu aldera. Labur zurrean, Monzón irakaslearen aburuz, presio-taldeak sortu behar dira kooperatiben mesedetan lan egiteko, baita gizarte zibilarekin egin beharreko itunak ere, bi-bion interes orokorrak berdinak direlako.

Jarraian, mahai-ingurua osatu zen bi partaide gehiagorekin. Alde batetik, Baleren Bakaikoa irakasleak, GEZKIko lehendakariak, adierazi zuenez, gazteek gizarte-ekonomiako enpresen aldeko gogoak dute baina zailtasun handiak ikusten dituzte kooperatiba-eredua erabiltzeko euren lanbidea sortu behar dutenean. Halaber, nabarmendu zuenez, azken mailetakoko ikasleek junior kooperatibak sortzeko aukera dute, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat ematen duela; dena den, diru-laguntza hori baldintzatuta dago ikasketak amaitzen dituztenean junior kooperatiba lan elkarrekin kooperatiba bihurtu behar delako. Beste alde batetik, Deustuko Unibertsitateko irakasleak, Divar jaunak esan zuenez, kooperatibek ghetto bihurtzeko arriskua dute, sozietate itxia bere mutualismoan sartuta. Divar irakaslearen ustez, kooperatibak ulertu behar du merkataritzako sozietate forma bat gehiago dela eta merkaturaren gainerako merkataritzako formekin lehian dabilela. Kapitaleko sozietateekin duen aldea, beraz, ez da bere mutualismoa ezpada demokrazia ekonomikoa eta bazkideen eskubidea ekonomian parte hartzeko kooperatibaren bitartez.